

Arreo-Caicedoko aintzira



Ingurumen-garrantzia

Arreo-Caicedo hezegunea den aldetik, oso aberatsa da ingurumen eta paisaia aldetik.

Gainera, kondaira eta erromeria batzuekiko lotura ere badu, eta hortik interes etnografikoa.

Euskal Herriko laku iraunkor natural garrantzitsuena da, eta ekosistema izugarri interesgarria, lakuetako astotariko fauna eta landareak baititu. Habitat ezinhobea da hainbat hezurgabe, anfibio eta arrainentzat. Hegaztien artean urarekin lotutako batzuk ditugu, besteak beste, lezkari karratxina (*acrocephalus arundinaceus*), Zertzeta arrunta (*Anas crecca*), murgilari mottoduna

(*Aythya fuligula*) eta ipar-ahatea (*Anas strepera*). Garrantzitsuak dira, halaber, Europa mailan babestutako ornogabeen bi espezie. Bata, tximeleta da La doncella de ondas rojas (*Euphydryas aurinia*) eta bestea, sorgin-orratzen taldeko odonato bat, Coenagrion mercuriale espeziea, hain zuzen ere. Lakuaren alboetan ametzak (*Quercus faginea*) eta arteak (*Quercus rotundifolia*) gailentzen dira ihien eta lastodunen artean. Ogeitabost bat metroko sakonera izatera heltzen den hezegune honetako landareek itxura zentrokidea hartzen dute. Kanporago, ihiak eta lastodunak dira nagusi, eta ur-azalera hurbildu ahala, ezpata-belarrek

(*Typha latifolia*) eta lezkek (*Phragmites Australis*) kolonizatzen dute eremua. Lezka horiek intsektu, anfibio eta hegazti ugariren babestokia dira, eta hauetako batzuek landare haiek erabiltzen dituzte habiak egiteko. Bestalde, uraren sakonera handitu ahala, alga batzuk eta utrikularia izeneko landare haragijalea agertzen dira. La planta de San Antonio (*Epilobium hirsutum*) ere hezetasan handiko eremuetan hasten da. Hegazti migratzaileentzat pasabide garrantzitsua da lakua, bai neguko babestoki gisa, bai atsedenleku gisa. Halaber, anfibioen ugalketarako gun e aproposa da.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1,8 km



30 min



BTT lur-biltze bideetatik



Udalerria:

Lantarón

Hurbileko herria:

Arreo



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo. Lurzoru zurruna eta zamari bideak



684 m



44 m



655 m



45 m



ARREO-CAICEDOKO AINTZIRA

Arreo-Caicedoko aintzira




Non dagoen eta nola heldu

Arreo-Caicedoko aintzira Arabako lurralde Historikoaren hego-mendebaleko koadrantean dago, Arabako Haranak eskualdean. Caicedo-Yuso eta Arreoren artean, Lantarón udalerrian, Turiso mendilerroan, Gesaltza Añanako diapiroren hegoaldeko ertzean. Hara heltzeko, Pobesetik Gesaltza Añanara doan A-2622 errepidea har dezakegu. Gesaltza Añanara heldu baino lehen, Vitoria doan A-4318 errepidea hartuko dugu, Arreoraino. Aukerarik onena, bide horretan, kilometro batez jarraitzea da, Lakuko amabirjinaren basiliza heldu arte. Basiliza ezkerrean dago, errepidetik 100 bat metrora, eta bertatik ekingo diogu ibilbideari.

Lakuko Amabirjinaren basilizan autoa utzita, 100 bat metro egin ondoren, lakuraino eramango gaituen nekazal bide asfaltatu bat hartuko dugu. 900 metro egin ostean, eskuinaldera doan lurrezko bidetik (GR-1) jarraituko dugu. Handik lakua eta inguruko lursailak ezin hobeto ikusiko ditugu, bai eta lakuaren iparraldean den karraska-ametzezko basoa ere, o iten gainean datzana. Bidexka bat hartuta, lakuraino bertaraino heltzeko aukera ere izango dugu. Ibilbidea bizikletaz egin daiteke BTTrako pista batetik.

GR-1 hartuta, Gesaltza Añanara heldu eta hango paisaia zoragarriaz gozatzeko aukera izango dugu, Euskal Herriko gatzagarik garrantzitsuenetik hurbil. Ibilaldia edozein urtarotan egin daiteke, baina euri sasoian du ur-azalik handiena lakuak.

Udazken aldera joanez gero, inguru hau lotarako erabiltzen duten araba-zozoen aldrak ikusteko parada izango dugu.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Arreo-Caicedoko aintzira



Arreo-Caicedoko aintzira

